Urteko jarraipen-txostena
ENKARTERRIKO ESKUALDEKO PLAN ESTRATEGIKOA
2022

BIC BIZKAIA
EZKERRALDEA
UP! EUSKADI

Enkarterriko Eskualdeko Plan Estrategikoko 50 jarduketa.

Jarduketa horien helburua lehentasunezko jarduketa-eremuak indartzea da, zenbait funtsezko eremutan: ekonomiaren suspertzea, enplegua, gizarte-kohesioa, hiri-berroneratzea eta mugikortasuna eta jasangarritasuna.

6 proiektu eragile

1. BARNEKO ETA KANPOKO MUGIKORTASUNA HOBETZEA, BEREZIKI TRENBIDE-AZPIEGITURA ETA -ZERBITZUA
   12 jarduketa.
2. AKTIBO TURISTIKO ETA KULTURALEN INTERKONEXIOA
   12 jarduketa.
3. HEZKUNTZA- ETA LAN-MUNDUAN INTEGRATZEA: LH GARATZEA ETA LANERATZEA
   14 jarduketa.
4. LANDA-EREMUAK DIGITALIZATZEKO BANDA ZABALA HEDATZEA
   3 jarduketa.
5. ENPRESA-GUNEAK SORTZEA
   4 jarduketa.
6. ENKARTERRIN BIOEKONOMIA SUSTATZEA
   5 jarduketa.

50
JARDUKETA

ENKARTERRI	EUSKO JAURLARITZAREN JARDUKETAK
EK1 Enkarterrirako trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua hobetzea	L4 proiektuaren kanpaina geoteknikoa Eraikuntza-proiektua idaztea (2022ko amaiera) Ariz terminaleko seinaleztapena Ariz terminala berritzea RVPV 2021 azterlana (Balmaseda Irauregiko tartea) Irauregi-Lutxana bidea berritzea
EK2 Enkarterriko aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa	Autokarabanentzako aparkalekuen, sustapen-materialen eta hedapen-tresnen eskaintza handitzea Errealitate Birtual areagotua Enkarterriko turismo-eskaintza guztia biltzen duen kudeaketa-plataforma digitala Mugikortasun Jasangarriaren Proiektua Enkarterri Bike &Walking Plan estrategikoa ekitaldi berezietarako lurralde gisa garatzea Zallako artisten gunea. Artisten gunea, Guata zelulosa fabrikan
EK3 Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea LH garatzea eta laneratzea	San Viator (10 jarduketa) Maristak, Zalla (3 jarduketa)
EK4 Eskualdea digitalizatzeko banda zabala hedatzea	5G hedapen-proiektuaren diseinua, plangintza eta jarraipena Erabilera-kasuen programa
EK5 Enpresa-guneak sortzea	Elkartegirako lursailak erostea Elkartegia eraikitzea Güeñesen eraikina erostea Güeñesko eraikina birgaitzea
EK6 Enkarterrin bioekonomia sustatzea	Industria-proiektuak Bioekonomiako HUBa Prestakuntza-proiektua

ENKARTERRI	BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETAK
EK1 Enkarterrirako trenbidearen barruko eta kanpoko mugikortasuna eta zerbitzua hobetzea	Malabrigo – Traslaviña BI-630 obra La Herrera – Malabrigo BI-630 obra Traslaviña – Trutzioz BI-630 obra La Escrita – El Callejo BI-630 obra El Callejo – La Cadena BI-630 obra Mugikortasuna: BIZIPUNTO ETA BIZIPARK
EK2 Enkarterriko aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa	Jarduketak La Encartada Fabrika-Museoan Hobekuntzak Karpinean Turismoa sustatzeko ekitaldia Enkarterrin Kirol anitzeko Europako txapelketa. 1000 Gradutan
EK3 Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea	Eskola-absentismoa murrizteko programa
EK4 Digitalizatzeko banda zabala hedatzea	Eremu zuriak, banda zabala hedatzea
EK5 Enpresa-guneak sortzea	Elkartegirako lursailak erostea Elkartegia eraikitzea
EK6 Enkarterrin bioekonomia sustatzea	Basque Desing Center ekipamendua Basque Desing Center formakuntza

1.1. JARDUKETEN AURRERAPEN-MAILA



Amaituta	25
Egikaritzen	12
Diseinatzen	13
Hasi gabe	0
Bertan behera utzia	0

1.3. EUSKO JAURLARITZAREN JARDUKETEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

EK 1

Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua

5.000.000 €
4.278.000 €

EK 2

Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa

4.000.000 €
2.487.358 €

EK 3

Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea

3.000.000 €
3.000.000 €

EK 4

Landa-eremuak digitalizatzeko banda zabala hedatzea

4.000.000 €
1.783.577 €

EK 5

Enpresa-guneak sortzea

5.000.000 €
5.000.000 €

EK 6

Enkarterrin bioekonomia sustatzea

3.000.000 €
2.750.000 €

EK 1	% 85,5
EK 2	% 62,2
EK 3	% 100
EK 4	% 44,6
EK 5	% 100
EK 6	% 91,6

Planifikatutako aurrekontu orokorra

Betearazitako aurrekontu orokorra

Planifikatutako aurrekontua	Betearazitako aurrekontua	Aurrekontuaren betearazpena
24.000.000 €	**19.298.935 €**	**% 80,4**

1.3. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN JARDUKETEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

EK 1

Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua

28.420.995 €
5.500.000 €

EK 2

Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa

6.486.253 €
1.981.979 €

EK 3

Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea

415.000 €
0 €

EK 4

Landa-eremuak digitalizatzeko banda zabala hedatzea

1.300.000 €
1.150.000 €

EK 5

Enpresa-guneak sortzea

5.000.000 €
600.000 €

EK 6

Enkarterrin bioekonomia sustatzea

150.000 €
180.158 €

EK 1	% 19
EK 2	% 31
EK 3	% 0
EK 4	% 88
EK 5	% 12
EK 6	% 120

Planifikatutako aurrekontu orokorra

Betearazitako aurrekontu orokorra

Planifikatutako aurrekontua	Betearazitako aurrekontua	Aurrekontuaren betearazpena
41.772.248 €	**9.411.737 €**	**% 23**

1.4. PROIEKTU ERAGILEEN AURREKONTU BETEARAZPEN OROKORRA

PROIEKTU ERAGILEAK			PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUA	BETEARAZIA	% betearazia
EK1	Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea	EJ	5.000.000	4.278.000	% 86
		BFA	28.420.995	5.500.000	% 19
		GUZTIRA	**33.420.995**	**9.778.000**	**% 29**
EK2	Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa	EJ	4.000.000	2.487.358	% 62
		BFA	6.486.253	1.981.979	% 31
		GUZTIRA	**10.486.253**	**4.469.337**	**% 43**
EK3	Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea	EJ	3.000.000	3.000.000	% 100
		BFA	415000	0	-
		GUZTIRA	**3.415.000**	**3.000.000**	**% 88**
EK4	Landa-eremuak digitalizatzeko banda zabala hedatzea	EJ	4.000.000	1.783.577	% 45
		BFA	1.300.000	1.150.000	% 88
		GUZTIRA	**5.300.000**	**2.933.577**	**% 55**
EK5	Enpresa-guneak sortzea	EJ	5.000.000	5.000.000	% 100
		BFA	5.000.000	600.000	% 12
		GUZTIRA	**10.000.000**	**5.600.000**	**% 56**
EK6	Bioekonomia sustatzea	EJ	3.000.000	2.750.000	% 92
		BFA	150.000	180.158	% 120
		GUZTIRA	**3.150.000**	**2.930.158**	**% 93**
EK EPE GUZTIRA			**65.772.248**	**28.711.072**	**% 44**
EUSKO JAURLARITZA			**24.000.000**	**19.298.935**	**% 80,41**
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA			**41.772.248**	**9.412.137**	**% 23**

EK1. Barneko eta kanpoko mugikortasuna hobetzea, bereziki trenbide-azpiegitura eta -zerbitzua

TRENBIDE-PROIEKTUAK: Trenbide-azpiegiturekin lotutako jarduketen helburua trenbide-sarea hobetzea da, etorkizunean C4 linearen maiztasunak hobetze aldera. Garajeak Irauregin kokatzea, Arizko terminala berritzea eta metroaren L4a luzatzea funtsezkoak dira Balmaseda-La Concordia linean aurrera egiteko etorkizunean.

HOBEKUNTZAK BI-630 ERREPIDEAN: Bide hori berritzeko, bost tartetan banatu zen, eta horietako bat amaitu da: Malabrigo-Traslaviña. Ostera, beste laurak ingurumen-izapidearen zain daude.

MUGIKORTASUN JASANGARRIA: Bizikleta garraiobide gisa erabiltzea sustatzeko bi programa jarri dira abian: BIZIPUNTO, bizikletak konpontzeko eta garbitzeko geltokiak, erabilera librekoak eta doakoak, eta BIZIPARK, bizikletentzako aparkaleku seguruak. Horien helburua herritarren artean bizikleten, eta, zehazki, bizikleta partikularren ohiko erabilera sustatzea da.

EK2. Aktibo turistiko eta kulturalen interkonexioa.

AZPIEGITURA TURISTIKOEN PROIEKTUAK: Enkarterri eskualdean azpiegiturak, zerbitzu digitalak eta mugikortasun jasangarria eskaintzeko hainbat ekintza egin dira, helmuga turistiko gisa kokatu dadin (autokarabanen aparkalekua, errealitate birtuala, plataforma digitala, bizikleta elektrikoak kargatzeko puntuekin, eta abar).

SORMENEZKO ARTEEN PROIEKTUA: Zallako Guatan sormenezko arteak garatzeko aukera-gune bat sortzea. Higiezina erosi egin da eta bertan garatuko den kultura-proiektua diseinatzen amaitu da. Obra lizitatuta dago eta hondakinak kentzeko eta kanpoko fatxada egokitzeko lanak hasi dira. Zallako Udala da jarduketaren buru.

ONDAREA BERRESKURATZEA: La Encartada Fabrika-Museoak eta BBK Karpin Faunak, zeinak eskualdeko kultura- eta turismo-baliabideak baitira, aurrera egin dute balioa emateko aurreikusitako hobekuntzetan. Lehen kasuan, lau makina berreskuratu dira, eta bigarrenean, berriz, Terrasauro eremua hobetzeko obrak egin dira. Beste jarduketa batzuk egiteke daude, hala nola teilatua berritzea eta turbina martxan jartzea La Encartada Fabrika-Museoan eta Karpin Faunara sartzeko pasabidea

TURISMOA SUSTATZEKO EKITALDIAK: Enkarterrik turismoa sustatzeko azoketan parte hartu du (Merkat de Merkats, bai eta visitenkarterri&Basquemountains helmugako marketin-kanpainan ere). Horrez gain, Duatloi Krosa egin da, baita 1000 GRADUTAN musika-zikloa ospatu ere La Encartada Fabrika-Museoan.

Artisten Gunea

Errealitate birtuala

Bikes

EK3. Hezkuntza- eta lan-munduan integratzea: LH garatzea eta laneratzea

PRESTAKUNTZA-GELA BERRIAK: Sopuertako San Viator eta Zallako Maristak lanbide-heziketako ikastetxeek ikasleak teknologiara, energiara eta bioekonomiara bideratutako prestakuntza-adar berrietan gaitzeko gelak eta tailerrak ezarri dituzte.

HEZIKETA-ZIKLO BERRIAK: Bi heziketa-ziklo ezarri dira: bata zahartze aktibo eta osasungarriarekin lerrokatua, eta bestea robotikako eta 3D inprimaketako ekipamenduekin lerrokatua (mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko teknikaria eta fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko teknikaria). Horrez gain, ibilgailu hibridoen eta elektrikoen mantentze-lanetan espezializatzeko ikastaro bat ere gehitu da.

TAILERREN ERABILERA: Instalazio eta ekipamendu guztiak zabalik egongo dira ekintzaileentzat, enpresentzat eta erakundeentzat, eta horri esker:

- Eskualdean irakaskuntza arautuaren prestakuntza-eskaintza areagotuko da.
- Enplegurako prestakuntzaren arloko prestakuntza eskainiko da.
- Ekintzailetza bultzatuko da.
- Enpresekin lankidetza-proiektuak eta berrikuntza-proiektuak garatuko dira.
- Eta Enkarterriko pertsonen laneratzea biziki hobetuko da.

INBERTSIO OSAGARRIAK: San Viator ikastetxeak baliabide propioak erabili ditu eraikin bat birmoldatu eta beste bat eraikitzeko, lantegi sortu berriak bertan jartze aldera.



Bioekonomia-laborategia



Elektromugikortasun-tailerra

Inkubagailua

Etxebizitza adimenduna

EK4. Landa-eremuak digitalizatzeko banda zabala hedatzea

DRONEEN HEGALDI AUTONOMOEN (5G) LABORATEGIA: Plegu bat diseinatzen ari gara 5Grekin konektatutako droneen hegaldi autonomoak esperimentatzeko laborategi bat ezartzeko. Laborategi horrek zerbitzu partekatuak emango dizkie EUSKO JAURLARITZAKO Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari (URA, EEE, SPRI, HAZI, IHOBE, etab.) eta proba-laborategi hori erabiltzeko interesa izan dezaketen beste administrazio batzuei.

5G ERABILERA POTENTZIALAK: Enkarterrin geografikoki banatutako droneak mobilizatzea, urrutitik erabili ahal izateko, eskualdeko gorabeheren aurrean lehen irudiak eta datuak hartzeko: (Adibideak)

URA. Ur-goraldiak, elur-jausiak, ibaietako isurketak, ur-bazterretako jarduerak monitorizatzea, etab.

IHOBE. Ingurumen-datuak ontziratutako sentsoreen bidez hartzea, etab.

HAZI. Izurriteak monitorizatzea, ganadua banatzea, irudiak adimen artifizialeko teknologiekin aztertzea, etab.

EEE. Droneen teknologia energia berriztagarrien esparruan aplikatzea.

.....

EREMU ZURIAK: 8 xede-udalerri dira (Alonsotegi, Artzentales, Galdames, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta eta Zalla). 350 etxebizitzatan amaitu dira jarduketak. 66 etxebizitza daude obran, eta 248 etxebizitzatan jarduteko baimen ofizialen zain daude.

EK5. Enpresa-guneak sortzea

ELKARTEGIA ZALLAN: El Longar Industrialdean lurzati bat erosi da Elkartegia jartzeko. Eraikin industrial bat izango du —oinplanoan 2.500 m2-ko azalera izango du—, eta 1.786 m2-ko bigarren eraikin bat —industria- eta bulego-moduluetan banatuta egongo da—. Gaur egun, proiektua idazten ari dira, eta 2023an azpiegitura hori eraikitzeko lizitazioa egitea eta obrak egiten hastea aurreikusten da.

GÜEÑESEN ERAIKINA EROSTEA: 2.800 m2-ko azalera duen higiezin bat erosi da; Bioekonomiako Hub bat sortzeko proiekturako erreferentzia izango da. Gaur egun, eraikina birgaitzeko proiektua idazten ari dira, eta obrak 2023an hastea aurreikusten da.

EK6. Enkarterrin bioekonomia sustatzea.

INDUSTRIA-PROIEKTUAK: Hiru enpresa-proiekturen bideragarritasuna identifikatu eta aztertu da: ardi latxaren artilea balorizatzea, zurezko zelulosatik zuntz-ehuna sortzea eta landare-ehunak sortzeko I+G+Bko enpresak sortzea.

BIOEKONOMIAKO HUBa: Bioekonomian oinarritutako enpresak sortzeko beharrezkoa den azelerazio- eta inkubazio-programa bat abian jartzeko lanean ari dira. Horretarako, 2.800 metro koadroko eraikin bat erosi da Gueñesen.

PRESTAKUNTZA-PROIEKTUA: Prestakuntza-programa bat abian jartzea, bai lanbide-heziketaren eremuan, bai unibertsitatearen esparruan. Ildo horretan, San Viatorrekin eta Hezkuntza Sailarekin itun bat egiten ari dira enbriogenesi somatikoko laborategi bat erabiltzeko eta arlo horretan prestakuntza eta ekintzailetza bultzatzeko (EK3 proiektu eragilea)

BDC: Ekonomia zirkularra eta bioekonomia sustatzearekin lotutako ekipamendua eman zaio Basque Desing Center zentroari, eta bio-modarekin eta bio-fabrikazioarekin lotutako prestakuntza-programak egiteko dirulaguntza eman zaio.

berpiztu
Z.A.P
Lehentasuneko Jarduera Zonaldea
Zona De Actuación Prioritaria
ENKARTERRI
Enpresa-espazioak sortzea/
Creación de espacios empresariales
Eusko Jaurlaritzak finantzatutako Proiektua /
Proyecto financiado por Gobierno Vasco
Aurrekontu-esleipena ZAPs funtsak: 7,5 milioi euro
Epea: 2021-2023
Asignación presupuestaria Fondos ZAPs: 7,5 millones de euros
Plazo: 2021-2023
Bizkaia
azpiegiturak
Sprilur